

Lukas santuak dakarrenez euxe esan eutson nagusiak administradoreari. Geuri be eskatuko deuskue egin dogun bierraren kontua; bai, bier egitera beartuak gagozalako, ain zuzen. Ta ez baten-batzuk bakarrik, guztiok baiño. Eleizearen dotriña da. "Mater et Magistra"-k ba-dakar: "Biarra gizaki guztien eginbearra ta deretxoa da".

# bier egiteko obligaziñua

Arrazoi edo olako batzuk be emon daitekez jakiteko zergaitik gagozan bier egitera beartuak. Batzuk besterik eztoz emen ipiñiko, adibidetzat:

a) Paulo apostoluak ba-zifion: "Bier egiten eztauanak, ez daiala jan be". Janaria, bere indarrez irabazten dauanak bakarrik merezi daualako. Egia, ezin ukatu

b) Nork bere tasun ta Jainkoak emondako gañerako doaiak ezin ditu lurpean gorderik euki. Guztiok gatoz bizitzara kualidade-tesoro batekin, edo gorputzean edo ariman daukoguzalarik tasun orrek. Eta jakiña, tasun orrekaz irabaztera jo bear dogu. Eztakizu Ebanjelioko morroi alper areri zer gertatu iakon? Arek be ugazabak emondako talentua, lurrean zulo egiñik, eskutatu egin eban, ugazaba a gogorra zala-ta bildurrez, noski. Etzeban ezer irabazi, egia esan. Baña etzeban ezta ezer alperrik galdu: emon eutson talentua oso-osorik eukan. Alan da guztiz be gogorki eskatu eutsozan kontuak ugazaba arek: "Morroi gaizto alper alako!... jarri bear uan ba, nire dirua diru-gizonen eskuetan, eta itzultakoan irabaziekaz ta guzti jaso aal izango neukean nik nire dirua". Jakiña, ugazabak ez eutsozan kontuak eskatu dirua galdu ebalako, geiago irabazi ez ebalako baiño. Geuri be deste orrenbeste.

c) Gañera, joandako gizardietako gizoneri esker daukotaz nik, dotazan errez-tasun ta adelantu onek guztiok. Nik be ba, nire partetik —alan eskatzen daualako betebear sozialak— nire gerokoeri laguntzen saiatu bear naz. Au be betebearra da, obligaziñoa. Ez karidadea ta filantropia bakarrik.

d) Jainkoak mundua egin eban bai, baiño ez-osotua lez itxi eban, gizonen osotu egien indar ezkutatu orrek askatuaz. Ta guztiok dakigu indar ezkutatu orrek askatuteko bier egin bear dala, sendo gañera. Eztago bueltarik or. Ara, esate baterako inbentuak: onek eztira berez ta kasualidadez egiten. Inbentu-urretik bier egin bear izaten da. batez be buru-bidez.



Ez iñoiz aaztu bierra klase bitakoa dala: buruzkoa ta eskuzkoa. Batzuk, eskuzkoari bakarrik deitzen deutse bierra. Ezta egia. Buruzkoa be bierra da, ta, probatu danez, eskuzkoak baiño desgaste geiago daroana, gañera. Biak dira bearrezkoak, ori bai. Ta era bietara bier egiteko obligaziñoa daukogu gizonok. Jakiña, ez guztiok era bietara, batzuk batera, ta besteak bestera baiño. Baña au ondo buruan sartu: guztiok biar egitera.

Juan Mari Torrealday, anaiak.

"Ekartzak ire kontuartzalletza orren barri"